

# KALEAN BIZI DIREN INMIGRANTEAK

## EUSKAL HERRIAN

Azkenengo urtetan, Euskal Herrian, kalean bizi diren edo etxe gabe bizi diren pertsonen kopurua asko handitu egin da, bereziki, azkenengo hamar urteetan. Datuak begiratuta, 5000 pertsona dira Euskal Herrian etxe gabe bizi direnak eta datu hoietako 2000, bizkaikoak dira.

Munduan zehar, kalean bizi diren pertsona asko daude. Horren arrazoi nagusia, arazo ekonomikoak edukitzea da, adibidez, lana barik geratzea, ezkontza-haustea eta familia hausturak.


2020an Caritas-ek egin zuen ikerketa baten arabera, koronabirusak eragindako osasun eta gizarte krisiaren ondorioz, etxe gabeko pertsonen kopuruak gora egin zuen.

Pertsona hauen egoera ekonomiko eskasaren aparte, egunero diskriminazioa eta besteengandik aporofobia (pertsona pobreetan gorrotoa) sufritzen dute.




### BIZKAIA

Bizkaian ia 2000 etxe gabeko pertsona daude. Hamarretik zazpi inmigranteak dira. Inmigrante horiek, gehienbat, 18 eta 44 urteko artean dituzten gizonak dira, lan gabekoak eta gehienak bakarrik daudenak. 2012.urtetik, 808 etxe gabeko pertsona gehiago daude Bizkaiko kaleetan bizitzen eta datuak gora doazenez, hurrengo urteetan zehar, seguruena, kopurua handitzea da.



### ETXE GABEKO IMMIGRANTEAK EUSKAL HERRIAN

Euskal herriko etxe gabeko inmigranteen kopurua gero eta altuagoa da azken 10 urteen datuak begiratuta. 2014-eant, 2012 konparatuta, datuak jaitsi diren une bakarra izan zen. Hortik aurrera, kopurua gero eta altuagoa da eta hurrengo urteetan zehar gehiago igotzearen probabilitatea altua da.



### URRATZEN DIREN GEAU ETA GJH

GEAU eta GJH atal asko urratu baina batzuk aipatuko dugu

- **GEAU:** 23. Atala; *pertsonak orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzekoa eta lanbaldintza egokiak izatekoa, eta langabeziaren aurka laguntza jasotzeko.* (harremana dauka, kalean bizi diren gehienak, ez dute lanik).
- **GJH:** 1. Atala; *pobrezia desagertzea.* (harremana dauka, kalean bizi badira, diru ez dutelako da, beraz pobrezian bizi dira).



### GURE IRITZIA

Gizarte desoreka larria dagoela uste dugu, ekonomiarekiko, erlijioarekiko eta arrazarekiko gehien bat. Inmigrantea izateagatik lana galtzen baduzu edo despreziatzen badugu bere azal koloreagatik, eta horren ondorioz kalean bizi bazara, hau aldatu beharra da, gizartearen onurarako.

Egoera hau hobetu dezakegu, donazioak egiten, erakunde sozialei laguntza eskaintzen (adibidez ekonomikoa) eta informazio hau munduari erakusten, jende gehiena egoerataz berri ez dutelako.

